

2012ko APARTEKO LANSARIA

Azken notizia da Eusko Jaurlaritzak legearen intereseko kasazio-errekurtsoa aurkeztu duela Auzialdiko 6. Zki.ko epaia dela-eta, aparteko lansaria ia osorik kobratzea aitortzen du epaiak.

Horrek frogatzen du Eusko Jaurlaritzak ez duela inolako asmorik guri ordaintzeko; hortaz, auzibidera jotzeko **erreklamazioa egin behar dugu hiru herrialdeetako langile guztiok**, orain arrazoi handiagoz.

Aintzat izateko kontzeptuak:

- funtzionarioei dagokienez, gertaera sortzailetik 4 urtean zehar daukagu diru-kopuruak erreklamatzeko aukera. Hori horrela, gutxi gorabehera urtebete daukagu erreklamazioa egiteko.
- epaiaren ondoreak hedatzea eskatu ahal izateko epaia irabazi duenaren egoera juridiko berberean egon behar da eta prozedura hasieratik egin behar da administrazio-bidea agortu arte. Bizkaian epaiari egokitu gatzai: eskatu dugu abenduaren 30 eta 31 salbuesteko, epaileak adierazi duelako gai honetan daitekeen epaitza bakarra horixe dela. (Berriro bidaltzen dugu testu eredua)
- Araba eta Gipuzkoari dagokienez, bidali genizuen erreklamazio testutik ondoko zatitxo hau ezabatu behar da eskaeran: *“con excepción de la cantidad correspondiente a los días 30 y 31 de diciembre de 2012”*. Salbuespen hori epailearen erabakia baita baina erreklamazioa aparteko lansari osoa kobratzea da. (Arabari eta Gipuzkoari egokitutako eredua bidaltzen dugu).

ERREKLAMAZIOAN ZEHARREKO EPEAK

Komentatu bezala, lehendabiziko urratsa erreklamazioa da. Jende nahikotxok erregistratu egin du eta galdetu digu zeintzuk diren bete beharreko epeak. Hona hemen:

1. ERREKLAMAZIOA. Aurkeztu eta gero, **3 hilabete**an administrazioak ez badu erantzuten...
2. **Hilabete 1** daukagu GORA JOTZEKO ERREKURTSOA egiteko; eta **3 hilabete** pasatuta erantzun ezean administrazioak...
3. **6 hilabete daukagu** DEMANDA administrazioarekiko auzietako epaitegian aukezteko.

Hurrengo testu eredua eskuragarri jarriko dizuegu behar denean.

Kontua da erreklamazioak batu eta erregistratzeko ardura hartu duena adi egon dadila epeak noiz beteko hurrengo fasean sartu ahal izateko.